


Arnasa Gara
MARKA GARAPENA



TXIMELETA, ZERGATIK?

Tximeleta arnasa da. Leun mugitzen dena, inor molestatu gabe, arnasa bezala. Tximeleta eraldaketa da. Beldar izatetik, kolore bizi eta ederrenak edukitzera heldu daitekeen animalia da, etorkizunean izan gaitezkeenaren metafora.

Tximeleta txikia eta hauskorra da, zaindu beharrekoa, arnaguneak bezala. Arnasa bizitzeko ekintza da, ezinbestekoa. Bihotzarekin eta naturarekin lotzen gaituena. Mugimendua eta lasaitasuna da. Munduaren Arnagunea irudikatzeko erabili izan da maiz Amazonas oihana. Zuhaitzaren formak badu antzik birikaren formarekin. Eta honek aldi berean tximeletaren hegoekin. Eta honek aldi berean bihotzarekin. Eta honek, noski zuhaitzarekin. Lau irudi funtsezko hauei jirabiraka atera dugu iruditeria. Era berean, arnaguneak etorkizuneko errealitate gisa irudikatu nahi ditugu, diseinu sofistikatu eta moderno batekin lotuaz.

arnasa gara






ARNASA GARA, ZERGATIK?


Mezu sinplea bezain indartsua da. Arnasak bizitzarekin du zerikusia, hori gabe ez da inor bizi. Udalerri euskaldunak eta bertako herritarrak Euskal Herriaren arnagune direla nabarmendu nahi da ideia honekin, euskara bizirik mantentzearen berme nagusia.

Dinamikoa da. Uneoro arnasten dugu. Haizeak ere, arnasten dugunak, badu halako izaera dinamiko bat, freskoa. Lasaitasuna ematen duena.


Mezua lehen pertsonan eta kolektiboan: Arnaguneetako herritarren ahalduntzea sustatzen du. "Arnasa gara". Norberak bere buruari balio bat ematean oinarritzen da mezua. Mezua kolektiboan osatzeak identitate sentimendu bat indartzen du (parte hartze prozesuan arnaguneen izaera moduan identifikatu genuen hau)

Arnasa / askatasuna / haizea vs. Arnas falta / estutasuna / kartzela dikotomia








Logoaren behin betiko bertsioak kanpainaren helburuak islatzen ditu. Tximeleta bitan banatuta dago, baina bakarra da aldi berean. Euskararen lurraldeari egiten dio erreferentzia, Euskal Herriari. Bi zatietako batek arnaguneak diren eremuak irudikatzen ditu, desberdinak beraien artean, baina guzti horiek hartuak ditu euskarak. Eskubiko aldeak euskararen hedapena irudikatzen du, eta horretarako arnaguneek duten gaitasun eta potentzialitatea adierazten du. Arnaguneetatik hauspotuko da, zabalduko da euskara beste eremu berrietara, oraindik euskarak guztiz hartuta ez dituen eremu horietara. Arnaguneen Kutsatzeko gaitasunaren adierazle dira bukaerarik ez duten lerroak.



Arnasguneak izaera tradizional batekin lotzen diren arren, parte-hartze prozesuaren ondorioek erakutsi dute herri adina nortasun eta identitate aurki daitezkeela arnasgunetan. Hori abiapuntu gisa hartuta, eta arnasguneek naturarekin duten lotura estua ahaztu gabe, gaur egungo tendentzien arabera koloreak aukeratu ditugu: olibondoaren berdea, turkesa iluna eta antrazita argia (grisa). Honek nortasuna ematen dio kanpainari, eta aldi berean, identifikazio-puntu desberdinak sortzen ditu.





arnasa gara

HELVETICA NEUE Heavy

Helvetica letra tipoak formaltasuna adierazten du. Letra moldatua egon arren, heldutasuna eta konfiantza eskaintzen ditu. Erakunde publikoek sustatutako ekimena den eran, egokiena da tipografia neutro bat. Freskotasuna lortze bidean, letrak bata bestearen gainean jarriak daude, eta koloretan nahastuta. Formaltasuna galdu gabeko erakargarritasun bat ekartzeaz gain, arnasarekin lotzen da tipografia bera: gardena eta garbitasuna iradokitzen du. Euskararen arnasak bezala.

aRNasa
GaRa

aRNasa
GaRa

aRNasa
GaRa

aRNasa
GaRa

**AR
Na
Sa
GaRa**

**AR
Na
Sa
GaRa**

**AR
Na
Sa
GaRa**

**AR
Na
Sa
GaRa**

aRNasa GaRa

aRNasa GaRa

aRNasa GaRa

aRNasa GaRa

80mm
aRNasa
GaRa

50mm
aRNasa
GaRa

35mm
aRNasa
GaRa

25mm
aRNasa
GaRa

————— 90mm
aRNasa GaRa

————— 70mm
aRNasa GaRa

————— 40 mm
aRNasa GaRa

**aR
Na
Sa
GaRa**


40 mm

**aR
Na
Sa
GaRa**

30 mm

**aR
Na
Sa
GaRa**

15 mm



ARNasa GaRa

ARNasa
GaRa

AR
Na
Sa
GaRa

aR
Na
Sa
GaRa

aRNasa
GaRa

aRNasa GaRa

aR
Na
sa
GaRa

aRNasa
GaRa

aRNasa GaRa


aRNasa
GaRa

aRNasa GaRa

aR
Na
Sa
GaRa







AR
Na
Sa
GARA



AR
Na
Sa
GARA



80mm —————



60mm —————



40mm —————





arnasagara.eus

HELVETICA NEUE Thin

aRNasa GaRa
arnasagara.eus

aR
Na
Sa
GaRa
arnasagara.eus

aRNasa
GaRa
arnasagara.eus



iametza